

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Antonio Bereziartua Elustondo

*Donostia,
Gipuzkoa
(1929-2021)*

Aurkibidea



Biografia



Donostiarra, Mundaiz inguruan jaioa, Beroiz-enea baserrian; "goikoetxeakoak" deitzen zieten, baserria muino batean zegoelako. Hamaika anai-arrebatan gazteena, hantxe bertan bizi izan zen 40ko hamarkadan baserria bota zuten arte, Koipe fabrika egiteko. Aita Azpeitiko baserri batekoa zen, eta ama Aieteko Indiano-enea baserrikoa. 14 urterekin arotz gisa hasi zen lanean Joxe Antonio. Gaztetan Aldapaberrira joan zen bizitzera, eta gero Herrerara ezkondu zen. Gerraosteko lehen ikastola sortzen parte hartu zuen han: Herri Ametsa. Elkarrizketa [Juantxo anaia](#) rekin egin diogu Joxe Antoniori (argazkian, ezkerrekoa).

Zintak

DON-009

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-09-10
- **Iraupena:** 87 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. "Goikoetxeakoak"

- **Erref:** DON-009/002
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:00:31. **Bukatu:** 00:01:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Mundaizen jaio zen, Beroizenea baserrian. "Goikoetxekoak" ziren auzokoentzat. Baserria nolakoa zen. Abereak. Arreba zaldi-karroarekin joaten zen Bretxara, berdurarekin eta esnearekin. Arrautzak, etxerako.</p>

2. Baserria nola galdu zen

- **Erref:** DON-009/003
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:01:57. **Bukatu:** 00:04:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Olazabalena zen baserria, maizterrak ziren. 1946an bota zuten. Koipe lantegia egiteko saldu zuten. Errekatik bestaldean Mundaiz baserria zegoen; haiek ere zaldi-karroarekin joaten ziren. Baserrian, umetatik lanean.</p>

3. Aita alargun, 10 umerekin

- **Erref:** DON-009/004
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:04:01. **Bukatu:** 00:06:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>11 senide ziren; 10 irten ziren aurrera, bost mutil eta bost neska. Txikienak (Joxe Antoniok) sei egun zituenean, ama hil zitzaien. Zaharrenak 25 urte zituen, baina denak baserrian bizi ziren. Arreba zaharrena ama lanetan hasi zen, eta ez zen ezkondu. Aita Azpeitiko baserri batekoa zen, eta ama Aieteko Indianoenea baserrikoa.</p>

4. Arrantza

- **Erref:** DON-009/009
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:08:48. **Bukatu:** 00:09:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Arrantza, errekan: izkirak, korkoiak... arrain asko zegoen. Fabrikek ura zikindu zuten, eta desagertu egin ziren. Orain berritzen ari da.</p>

5. Hondarra ateratzen, gabarrekin

- **Erref:** DON-009/010
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:09:30. **Bukatu:** 00:11:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

<p>Hiru-lau familia gabarrekin jaisten ziren errekan behera, eta Maria Cristina parean hondarra hartzen zuten. Marea igotzean, Loiolara buelta. Obretarako zen hondarra, morteroa egiteko.</p>

6. Sagardotegiak

- **Erref:** DON-009/011
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:11:05. **Bukatu:** 00:13:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Errotatziki sagardotegia: bi baserri ziren, bata errota zen. Marea igotzean, atea ireki eta itsasoko ura sartzen zen. Errota nola jartzen zuten martxan. 200 urteko baserria izango zen. Trenbidearen beste aldean zegoen. Mundaizko zubia dagoen tokian zeuden. Sagardoa egiten zuten. Beraiek ez zuten ezagutu, baina Amaratik txanelean joaten ziren sagardoa edatera. Txanela nolakoa zen. Auzoan lau sagardotegi zeuden: Mujika, Etxabe, Faustino eta Latxaga.</p>

7. Teila lantegia

- **Erref:** DON-009/012
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:13:49. **Bukatu:** 00:16:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Lanbideak » Etxeginak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Egiako industria. Teila fabrika zegoen tabakalera parean, bere tximinia

handiarekin. Jende askok egiten zuen lana han. 1945 inguruan kendu zuten. Teilak eta ladriloak egiten zituzten, etxeak egiteko. Hasieran idi-parearekin banatzen zituzten, baina hori ez zuten ezagutu; zaldi-karroa eta furgoneta bai.</p>

8. Tabakalera

- **Erref:** DON-009/013
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:16:21. **Bukatu:** 00:17:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Tabakalera eginda ezagutu zuten. Noiz itxi zen. Emakumeak ziren langile gehienak, ehundik gora. Pila bat etortzen ziren, toki askotatik. Ordutegia. Erreleboak hasi ziren gero.</p>

9. Emakumea, etxerako

- **Erref:** DON-009/015
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:18:01. **Bukatu:** 00:20:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Emakumea etxerako zen orduan, eta ez kanpoan lana egiteko. Arreba zaharrena, Joakina, amatzat zuten; etxean geratu zen. Gero, Koipen egon zen lanean, enkargatu bezala. Juantxo linternero eta Joxe Antonio arotz hasi ziren gaztetatik.</p>

10. Krabelinak, saltzeko

- **Erref:** DON-009/016
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:20:12. **Bukatu:** 00:22:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Baserriko lanak: baratzean lagundu, belarra moztu, metak egin, simaurra atera... Garirik ez zen. Lorea zeukaten asko, eta saltzera joaten ziren. Krabelinak, hoteletarako. Biarritz, Niza... Partikularrek ere asko erosten zuten. Orduan ez zegoen lore dendarik. Kanposanturako asko saltzen zen. Koronak egiten ziren asko, orain ez hainbeste.</p>

11. Eskolan, erdaraz

- **Erref:** DON-009/018
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:23:33. **Bukatu:** 00:26:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Egian erdaraz eta euskaraz antzera egiten zen, erdi eta erdi. Eskolan erdaraz ikasi zuten. Lau eskola zeuden gerra denboran Donostian. San Antonion hasi zen Joxe Antonio, sei urterekin. Groseko Biteriko eskolan ere ibili zen, eta gero don Pedroren eskolan, Egian. Eskola publikoa zen. Maisu erdaldunak. Maisuek ez zituzten denak berdin tratatzen. San Antonion bazen maisu bat makila erabiltzen zuena.</p>

12. Baserrira kanoikadak

- **Erref:** DON-009/019
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:26:48. **Bukatu:** 00:30:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra hasi zenean, milizianoak baserri inguruan. Bi kanoikada eta 125 bala bota zizkieten etxeari, denak bertan zirela. Anaiaren gelan erori zen kanoikada bat, eta zaurituak izan ziren. Joxe Antonioren ohe gainera ere erori zen bala bat. Arreba zaharrena maindirearekin atera zen, bake eske.</p>

Transkripzioa

-Juantxo: Beste istori bat kontatuko izut. Gerra hasi zanen... gerra hasi zan uztailan...

-Joxe Antonio: Hemezortzin.

-Juantxo: Hemezortzin. Uztailan hemezortzin hasi zan.

-Joxe Antonio: Julio. Julio al da uztaila?

-Juantxo: Bai.

-Bai.

-Juantxo: Bai, uztailan hemezortzin. Eta klaro, gu bizi giñan basarrin. Nik orduan nitun hamaika urte, eta hirugarren egunea... Donostiko aldetik zaren, orduan zian "los milicianos". "Los miliciano, los rojos" esaten ziyoten. Ta koarteletik, Loiyolako koarteletik atea ta etorri zian militarrek. Ta etorri zian Loiyolatik Amara sartzeko, ta gure etxea zeon pues hantxe, ttonttorrian. Eta zer gertatu zan? Gure etxek atzetik o beste aldetik hasi zian tiroka, eta usten zuten gure etxetik ateatzen ziala tirok. Eta ordun tropa Loiyolatik, soldau tropa, Amara aldea zatorrela, ze in zuten / intzuten/? Gue etxeai bi kañonazo bota! Eta ehun ta hogeita bost balazo, gue etxian. Eta ordun... etxen, denok geunden orduako etxen...

-Joxe Antonio: Bai.

-Juantxo: Bai, denok, [...] Ez, Patxi etxian, ordun.

-Joxe Antonio: Bea bai?

-Juan txo: Patxi bai.

-Joxe Antonio: Bai, bai...

-Juan txo: Klaro. Euxebio, ya Loiyolan ez konduta! Eta ze gertatu zan? Bi kaiñonazo bota zituzten, eta bat ganbaratik atea zan, baiño bestia gue anaiyan gela sartu zan. Eta han zeon gue anaiya Patxi, bere andreakin, emazteakin eta haur txikiya zakan. Neska txiki bat. Nexka jaiyo zan... otsailen. Bai. "Catorce de febrero", otsailen, jaiyo zan hua. Ta sei hillebeteko haurra... Gue koñeta ta anaiya herituta gelditu zien, eta haur txikiya, sei hillebetekua, xihaskan zeon, eta bere erropa tarten ezertxo're izan gabe, manta tarten nahastuta gelditu zan.

-Eta ondo?

-Juan txo: Bai, bai, haurra... txikiyak ez zun /etzun/ ezertxo're izan. Baiño anaiyak eta koiñatak herituta... Geo "Cuarto Socorro" a jun zian /juntzian/.

-Baiña larri ez?

-Juan txo: Ez, ez, larri ez. Ez, ez, larri ez.

-Sustua galanta!

-Juan txo: Bai, galanta!

-Joxe Antonio: Ni ohiyan neola nere ohiyan gaiñian bala bat... sartu ta teillatua... teillatua ez, beheko tetxuan jo ta raaa, nere ohiyan gaiñian eroi zan bala bat.

-Joe.

-Juan txo: Bai, goizeko seiterdiak zian. Goizeko seiterdietan zan, bai.

-Nola dakizue 125 ziala?

-Juan txo: "Porque" paetian markak gelditu zian.

-Ta gero kontatu in zenituzten?

-Juan txo: Klaro, klaro! Paretian, etxe paretan txulo guztik. Bai, bai. [...]

-Ba neihua zorte euki zenuten...

-Juan txo: Bai, bai. Nehiko suerte, nehiko suertia! Denok etxian giñan ordun, e! Sekulako jende pilla zeon.

-Bai, ordu horretan, ezta?

-Juan txo: Denak etxean giñan ordun.

-Joxe Antonio: Arreba zarrena maindiriakin leihora ateata ta hola, zea eskatzen... maindiria...

-Bai, pake...

-Joxe Antonio: Bai, pakia...

-Juan txo: Bai, hoi guk ezautu genun!

-Joxe Antonio: Hoi ezautu ta pasa!

-Juan txo: Eta pasa! Ezautu ta pasa in genun guk.

13. Anaia preso

- **Erref:** DON-009/020
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:30:14. **Bukatu:** 00:32:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra garaian, anaia zaharrena kanpora joan zen: lehenengo, Azpeitira, osabaren etxera; eta, geroago, Bilbora. Emaztea eta bi haurrak Frantziara joan ziren itsasontzian, amonarekin. Anaia preso hartu zuten. Bila joan ziren Iruñera bi anaia. Loiolan zazpi fusilatu zituzten, anaiaren lagunak.

Transkripzioa

-Eta zuek, gerra garaian, hemen geratu ziñeten?

-Juan txo: Bai, bai. Kanpoa jun zan /juntzan/ gue anai zarrena. Hoi bizi zan Loiyolan. Bere andriakin, eta bi haur zitun ordun: nexka ta mutilla.

-Joxe Antonio: Eta amagiñarreba.

-Juan txo: Bai. Eta orduan jun zian /juntzian/ Bilbao aldea. Bueno, lendabizi jun zian /juntzian/ Azpeitia. Osaban etxea, porque gue aita esan dizut Azpeitikua zala... Eta Donostitik jua zian hara, Azpeitia, ta han egon zian /egontzian/ astebete o ta gero nola hemengo indarrak sartzen ai zian, ordun jun zian /juntzian/ ya Bilbao aldea. Ta geo ya han, Bilbaun, han zarela /hantzarela/ e... gure anaiyak emaztea eta bi haurrak eta... Antonia ez. Amona... Amona're Prantziara jun huan? Bai.

-Joxe Antonio: Joxepa zan amona...

-Juan txo: Bai, Frantzia. Ordun denak Bilbautik barku batian jun zian /juntzian/ Prantzia. Ta gue anaiya gelditu zan han, Pran... Bilbaun. Denak bezela. Ta geo ya nazionalak sartu zianian, hartu zuten, eta beste asko bezela eukitu zuen lehendabiziko eunetan, e... Castrourdiales. Denak detenituta. Eta gero handik eman zuten /emantzuten/...

-Joxe Antonio : Iruñaa, ez?

-Juan txo: Iruñaa. Bai, "al fuerte San Cristobal". Ta han eon zan, ez takit ba, hillebete pare bat o eongo zan...

Joxe Antonio: Gehiyo igual, e!

Juan txo: O gehiyo igual. Igual gehiyo! San Cristobalen eon zan /eontzan/ gue anai zarrena. Eta ordun, han zeon /hantzeon/ ta beste anaiyak, e, herituta eon zana /eontzana/ gerra denboran, horrek lagun bat bazun, "porque" hoi ez zan /etzan/ jun kanpoa, hemen gelditu zan. Eta zauzkan hemen Donostin lagun batzuk, eta baten baten bitartez papel batekin jun zian /juntzian/ hau, txikiya zala, eta beste anaiya, eta hara, San Cristobalea jun, eta anai zarrena etxea ekarri zuen. Bai, hoi gertatu zan. Eta ez pada, jun ezpaza... jun ezpazizan afusilatu ingo zuten gue anaiya! Ez geiztua zalako...

-Ez, ez...

-Juan txo: Baiño ordun bakizu...

-Bai, bai. Afusilatu asko...

-Juan txo: «Porque» bere... Loiyolan ordun zazpi hil zituzten, e! Afusilatu, zazpi. Eta gehiyenak gue anaiyan lagunak zian.

-Orduan gutxiatik librau zan...

-Juan txo: Bai, hara jun zalako /juntzalako/, e!

14. Gerrako hilketen lekuko

- **Erref:** DON-009/022
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:33:17. **Bukatu:** 00:34:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

<p>Fusilamenduak baserri ondoan. Bi zanga egin zituzten; batean hiru eta bestean lau sartu zituzten. 11 urte zituen Juantxok eta zortzi Joxe Antoniok. Arranpan gizon bat hilda nola ikusi zuten, etxetik pijamarekin eramana.</p>

- Juantxo: Hoik zian... Bi zulo in zituzten. Eta gabian hamar... hamaikak aldean, hamaika ta erdik aldian... Gu basarriyan bizi giñan, ta biria zeon gue etxetik beheraldea. Ta gabian brrrrr... kotxen bat.
- Joxe Antonio: Gerran, ordun, ez zeon besteik.
- Juantxo: Gerra denbora zan. Ta “oain´e bator ba, baten bat badator”. Ta handik pixkatea, ta-ta! Ta-ta, tiruak. Eta batzu bertan gelditzen zien / gelditzezien/ hilda, ez zituen /etzituen/ jasotzen. Ta beste atzuk... zangak in zituzten, bi zanga, ta baten sartu zituzten hiru, ta bestian lau, usten det. Eta según, sartzen... sartzen zituen bezela, lurra botatzen zuten. Ta gau baten, ebiya in zun /intzun/. Eta gu jun giñan ikustea, eta batek hanka bistan zakan.
- Eta zu orduan, mutiko... mutikua ziñan.
- Juantxo: Ni? Hama... hamaika urte! Hamabi itea.
- Joxe Antonio: Nik, nik zortzi urte o.
- Juantxo: Zortzi urte. Hoi dena guk ikusi gendun.
- Joxe Antonio: Eta beste batian, e, oain leno esan deun ranpa hortako peko hortan, erriyoko ranpa hortan, beste goiz batian azaldu zan gizon bat, ya heldua, berrogeita hamar urte o hola, gabardinakin, pijamakin eta zapatillakin. Hua etxetik atea zuten.
- Juantxo: Bai, etxetik atea, ta...
- Joxe Antonio: Eta hara eaman, ta di-da ta han utzi ta kitto. Hori guk ikusiya da, e.
- Juantxo: Hoi dena guk ikusiya da, ordun.

- **Erref:** DON-009/024
- **Iraupena:** 0:00:19. **Hasi:** 00:35:01. **Bukatu:** 00:35:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

<p>2009ko ekainean atera zituzten gerra zibilean burdinezko zubiaren ondoan fusilatutakoen gorpuak. Beraiek bazekiten non zeuden, baina ez dute orain arte esan. Mapan, hildakoak agertu ziren tokia. </p>

- **Erref:** DON-009/025
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:35:20. **Bukatu:** 00:38:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Goserik ez, baina aserik ere ez. Zortzi urtetik 22ra nahiko ogirik ez zuen izan etxean Joxe Antoniok. Jendeak gosea pasatu zuen, baserrian patata eta babarruna bazuten. Txerria. Txekorra parte eman gabe nola hil zuten. Arrazionamendua. Kategoriaren arabera, arrazioak ezberdinak. Kupoiak, kartila. Edozein dendatara. Egian hiru denda zeuden.

Transkripzioa

-Gero... goserik-eta pasatu zenuten zuek, gerra ondoren?

-Juan txo: Bueno... guk ez. Guk goseik ez.

-Joxe Antonio: Guk goseik ez, baiño aseik´e ez, e!

-Juan txo: Goseik ez, baiño zegona, etxian zegona.

-Joxe Antonio: Zeatikan ogiya, nik zortzi urtetatik hogeita bi urte arte nehiko ogiya ez nun /enun/ izan etxian, eta txarra. Oso txarra.

-Beltza, ez?

-Joxe Antonio: Beltza ta txarra, e. Badia hamalau urte luze, e! Badia hamalau urte luze, e.

-Juan txo: Guk gose... kaleko jendiak bai, e. Hemen barriyoko jendea... Bueno, gosia erruzkoa pasa zun! Jende askok ordun... gose asko pasa zun, asko. Guk ez, "porque" basarrin... bakizu, patata, babarrunak, barazkiyak... gero arraultzak... Noizik eta behin txerriya ere hiltzen zan /hiltzentzan/. Beste baten, ordun... txekorra hil genun etxen! Parteik eman gabe. "Porque" bakizu, jaiyotzan ya parte eman bihar da, baiño gue aita ez zun /etzun/ jaiyotzian ez ziyon /eziyon/ parteik eman, eta geo, hillebete bat o hola zunian, etxian hil genun. Eta dena gatzetan jarri, samueran, eta geo jan gendun.

-Holako tranpatxuak asko egongo zian...

-Juan txo: Guk goserik ez genun pasa, e! Baiño etxeko gauzak. Ez oan bezela danetatik.

-Eta rasionamendua...

-Juan txo: Bai, rasionamentua, baiño... rasionamentua zan...

-Joxe Antonio: Etxetan... Bueno, rasionamentua gero zan [...].

-Bai, urte askuan...

-Joxe Antonio: Zortzi urtetatik... Rasionamentua... Izan bazian etxiak hiru kategorikuak. "Primera", "segunda" eta "tercera". "Primera", gu ez giñan "primera" a ailleatzen ezeatik, baiño... "Tercera" kuak, ba umiak eta etxeko jendia, lanik iten ez zuena /etzuena/. Eta lana iten zuena /itetzuena/ zan "segunda" kua. Gu ez giñan ordun sartzen oaindik. Eta "primera" kuak, ba aberatsak. Eta bakoitzantzako raziyo bat o bi ezberdiña. Guretzako haundixeo, txikixeo ta txikixeo. Eta kartilla bat, kartilla bat kupoiyakin. Oliyo billa juteko, esne billa juteko, eta holako billa juteko... ba hamabostian behin o. Egunkariyan etortzen zan.

-Eta nora jutun... jun bihar zan horren billa?

Juan txo: Dendetan!

-Joxe Antonio: Bai, bai.

-Juan txo: Eozein dendeta, e. Kartillakin eozein dendeta.

-Joxe Antonio: Kupoiya kentzen zizun, eta ematen zizun...

-Juan txo: Hemen Egian zeren hiru denda ordun. Ez zeon besteik. Hiru denda. Hemen, Egian.

-Eta ze tokitan zeuden, dendak?

-Joxe Antonio: Dendak?

-Juan txo: Bat, Enrike Simal... Egia sei.

-Joxe Antonio: Sei o zortzi, e!

-Juan txo: Ez, zortzi panadeiya!

-Joxe Antonio: Bai, panadeiya, oaintxe pasa naiz ni handik.
 -Juan txo: Egia sei zan. Bat. Gero, bestia Tabakalera aurren, Gerrikona. Portun bizi zianak.
 -Joxe Antonio: Bai, bai, bai.
 -Juan txo: Gerriko. Eta gero hementxe uan estankua... bueno, etxe berriya nola in dute hemen... Egian goiyen, ta hor. Hor... "las... la patatera" esaten... "Los Agerretxes. La patatera". Hor zeon beste denda. Barriyuan ez zeon beste dendik ordun.

17. Arrain saltzaileak

- **Erref:** DON-009/026
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:38:31. **Bukatu:** 00:39:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Kale saltzaileak ibiltzen ziren. Karro txiki batekin ibiltzen zen bat, sardinak eta txitxarroak saltzen. "A real el plato" saltzen zuen antxoa. Trukerik ez dute ezagutu.

Transkripzioa

-Eta kale saltzaillerik eoten zan? Arraiña saltzen edo beste...
 -Juan txo: Bai, bai, ordun... bai, bai, ibiltzen zian. Ibiltzen zian, e... bat ibiltzen zan karro txiki batekin ta gero egurrezko ohol batekin, ta han arraiya han ibiltzen zuten.
 -Joxe Antonio: Baiña sardiñak eta txitxarruak.
 -Juan txo: Bai, beste gauzik ez.
 -Joxe Antonio: Tabla bat izaten zan. Eta ohol bat hartu, ta emakumiak ibiltzen zian.
 -Eta hori, kaitik ekarritako...
 -Juan txo: Bai, bai. Donostiko kaiyetik ekarrita, Donostiko kaiyetik ekarrita, barriyoa. Goatzen naiz...
 -Joxe Antonio: [...] "Desde Santurce a Bilbao, vengo por toda la orilla".
 -Juan txo: Ta ordun merke zan, merke. Goatzen naiz... bueno, merke ez, ordun garestiya! Baiño, e...
 -Joxe Antonio: [...] asko ekartzen zuten ta...
 -Juan txo: "A real el plato" saltzen zun ordun eeee... antxoa. Oso ona, e! Plater haundi bat, "a real el plato". Reala zan hogeita bost xentimo lengo pezetanak.
 -Joxe Antonio: Nehiko diru zan ordun.
 -Juan txo: Ordun honbre! Honbre! "A real".
 -Orduan bai antxoak!
 -Juan txo: Orduan ´e diruba zan! "A real el plato" zan ordun.
 -Eta trukerik-eta iten zan?
 -Juan txo: Ez. Guk ez deu ezautu hoi, ez.
 -Berdura arraiñagatik aldatu...
 -Juan txo: Ez, ez, ez. Hoi guk ez deu ezautu. Hoik dia lehengo gauzak, guk ez deu ezautu hoi. Guk hoi ez deu ezautu.
 -Joxe Antonio: Ez.

18. 13-14 urterekin lanean

- **Erref:** DON-009/027
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:39:56. **Bukatu:** 00:41:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Etxeginak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

<p>Linternero ogibidea Egian ikasi zuen; Amarara joan ziren Joxe anaia eta biak gero. Orduan lanean ikasten zen ofizioa. Artes y Oficios. 13-14 urterekin lanean hasten ziren denak. Soldadutzatik bueltan anaiarekin hasi zen berriro. Joxe Antonio 13rekin hasi zen.</p>

19. Eraikuntzako lanak

- **Erref:** DON-009/029
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:41:33. **Bukatu:** 00:43:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Etxeginak
- Euskara » Lexikoa
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Eraikuntzako lanak. Sukaldeak, teilatuak, komunak... Erreminta gutxi zeuden: terraja, mailua, zintzela eta punteroak. Terraja tuboei erroka egiteko zen. Burnia erabiltzen zuten, eta beruna. Zinka ere bai. Plastikoa gero hasi zen. Beti Donostian ibiltzen ziren. Lana bazegoen. Astean 60 ordu tailerrean, eta gero baserrian. Igandean ere lana, metak egiten. Igande arratsaldea bakarrik jai.</p>

20. Igandetan Txomiñeneara

- **Erref:** DON-009/030
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:43:54. **Bukatu:** 00:44:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Txominenean jaiero egiten zen bilera, soinu-jotzailearekin. Campos Eliseos. Igeldoko jolaslekua. Ez dira dantzazaleak izan.</p>

21. Egunean hiru pezeta

- **Erref:** DON-009/032
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:45:19. **Bukatu:** 00:45:49

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

<p>Soldata:eguneko hiru pezeta irabazten zituen Joxe Antoniok, lanean hasi zenean; astean 21. Hurrengo urtean bost eta 20, eta hirugarren urtean zazpi eta erdi. 13 urterekin hasi zen lanean.</p>

22. Apaizak latinez eta erdaraz

- **Erref:** DON-009/036
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:47:48. **Bukatu:** 00:48:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Apaiz2k latinez eta erdaraz ematen zuten meza. Atotxako fraideek bakarrik egiten zuten euskaraz, Arantzazuko fraideek. Ez zuten hartu-eman handirik apaizekin.</p>

23. Egiako jaiak

- **Erref:** DON-009/038
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:49:47. **Bukatu:** 00:51:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Lehengo jaiak. Uztailaren 22an Madalena eguna ospatzen zuten. Atotxako eliza, Frantziskotarrena Santa Madalena delako. Tabakalera aurrean egiten zen jaia lau egunez eta gero egun batean goian. Karrerak. Urzaleak ellkarteak antolatzen zituen. Gero hasi ziren Porrontxoak.</p>

24. Txoriak ehizatzen

- **Erref:** DON-009/042
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:52:55. **Bukatu:** 00:55:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

<p>Umetatik hasi zen txoriak harrapatzen. Nola hartzen zituzten. Kaiolatan sartzen zituzten. Bixka. Zepoa. Kantuko txoriak hartzen zituzten, kardabak eta. Eskopetarekin, birigarroak eta. Zingiran txori asko izaten zen. Soldadutza egin zuenean, eperretara joaten ere hasi zen. Baserriko eskopeta lurpean sartuta egon zen gerra garaian. Bordaxarreko gizon alargunari gertatu zitzaiona: bi seme nola hil zizkioten.</p>

25. Arotz lanak

- **Erref:** DON-009/043
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:55:51. **Bukatu:** 00:58:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Arotz lanetan koinatuarekin hasi zen; soldadutzatik bueltan bere kontu hasi zen. Teilatuak, leihoak, habeak... Azken urteetan gauza finagoak ere bai. Altzariak ere bai, aulkiak eta. Gerra aurretik, egur ona: haritz amerikanoa, pinotea... Tarima egiteko. Gero eukaliptoa hasi zen erabiltzen lurrerako. Haritza, Gineako egurra... Mahaiak egiteko mazizoa erabiltzen zen dena: pagoa, haritza, pinua...</p>

26. Arotzaren tresnak

- **Erref:** DON-009/044
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:58:54. **Bukatu:** 00:59:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

<p>Arotzek erabiltzen zituzten tresnak zein ziren azaltzen du. Zepiloak, trintxak... 50 urte ez dira taladroak hasi zirela. Birbikinak zeuden lehen.</p>

27. Egur erabilienak

- **Erref:** DON-009/046
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:00:15. **Bukatu:** 01:02:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak » Arotzak
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

<p>Pagoa Nafarroatik ekartzen zuten, Irati aldetik; haritza amerikarra asko. Intxaurre gutxi zegoen. Egur garestienak kaoba eta intxaurre beltza dira. Donostian egin zuen lana batez ere. Txillidaren eskulturentzat enkofratuak ere egin izan ditu. Matxinbratuak.</p>

28. Hargintza

- **Erref:** DON-009/048
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 01:02:23. **Bukatu:** 01:04:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Lanbideak » Etxeginak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

<p>Taila asko galdu da. Hargina ere bai. Eskuz egiten ziren etxeak. Toldoa jartzen zuten, kalean. Hondar harriarekin daude eginda Donostiako etxe asko. Igeldoko eta Uliako harria. Gailego asko ibiltzen ziren hargintzan.</p>

29. Serenoak I

- **Erref:** DON-009/050
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 01:05:14. **Bukatu:** 01:05:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

<p>Sereno bakoitzak hiru-lau kale zituen. Giltzak zituen. Bastoiarekin lurrean joaz etortzen zen. 1965 aldera kendu zituzten.</p>

30. Etxeetan ateak zabalik

- **Erref:** DON-009/057
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:08:00. **Bukatu:** 01:09:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Aterdikoa zabalik egoten zen baserrian. Gauez ikuilua ere bai, udan. Lapurretarik ez zen egoten. Kaleko etxeetan sarraila nolakoa zen: sokarekin tira eginda irekitzekoa.</p>

31. Ikastolen sorrera

- **Erref:** DON-009/059
- **Iraupena:** 0:04:44. **Hasi:** 01:09:35. **Bukatu:** 01:14:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Alaba izan zutenean hasi zen Joxe Antonio ikastolako kontuekin, Herreran. Herri Ametsa, Ulian dago orain. Egian Aitor ikastola sortu zen. Carquizano kalean hasi zen Miren andereñoa, bere etxean. Mojei gela bat alkilatuta hasi zen gero Aitor. Miren eta Ana andereñoa hasi ziren. Lokala erosi zuten gero. Santo Tomas lizeora joaten ziren.</p>

32. Umetako pasadizoak

- **Erref:** DON-009/066
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 01:18:32. **Bukatu:** 01:20:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Putzua zegoen etxe ondoan, eta handik ura hartzen zuten kalderarekin. Joxe Antonio "txalburuak" (zapaburuak) harrapatzen hasi eta erori egin zen. Juantxok atera zuen. Trenbidean ibiltzen ziren, eta Juantxo sasi artera nola erori zen. Ume jolasak.</p>

33. Trena

- **Erref:** DON-009/068
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 01:20:40. **Bukatu:** 01:21:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

<p>Trena zuten etxe ondoan. Diskoa gorrian zegoenean, geratu egiten zen trena, baina batzuetan ez zebilen ondo.</p>

34. Ur bila iturrira

- **Erref:** DON-009/069
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 01:21:37. **Bukatu:** 01:23:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

<p>Urik ez zegoen. Kanilako ura kilometro batera zuten. Fielatoa zegoen tokian iturria zegoen. Astoarekin eta karroarekin joaten ziren ur bila, zortzi urterekin. Ura berotzeko deposituak. Ganaduarentzat ere behar zuten. Udan egunean bitan ere joaten ziren Norteko geltokira.</p>

35. Desagertutako baserriak

- **Erref:** DON-009/071
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:24:00. **Bukatu:** 01:25:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Gerra ondoren jarri zuten ura etxean. Argia beti ezagutu dute, baina baziren argi gabeko baserriak ere inguruan. Desagertutako baserriak: Tolare, Tolagoi, Aldapa, Erreka, Uatene, Konkorrere, Kapitanene, Latxaga, Mantsuene, Etxetxo... Egiatik Altzaraino dena baserriak ziren.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com